



23.KORRIKA. Herri harroaren Korrika!

Erotuta al daude euskaltzale hauek? Mapan, Irundik Baionarat 35 bat kilometro daude: 20 minututik gorako ibilbidea autoz, 45 bat autobusean. Hori ikusita, nola da posible bi tokiak lotzea, 2400 bat kilometro eginda, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren? 11 egunez, gainera.

Nola da posible? Bada, euskararen aldeko mugimenduak aldarri zuzen eta ozena egin nahi izan zuelako, erakusteko "Herri Harroa garela, gauden harro garenaz eta egiten dugunaz". Horrela, 2024ko martxoaren 14tik 24a, euskaraz bete genituen kaleak eta errepideak; korrika egin genuen 23. aldiz, ordukoan, adierazi moduan, Irundik Baionarat. Leloa, honakoa: "Harro Herri".

Gogoan zenuten 23. KORRIKAren abestia? Esku onetan utzi genuen, jakina; entzungai duzue Maite Arroitauregi Aranburu "Mursego" artistaren kanta. Baina ez zuen berak bakarrik egin: nabarmendu beharra dago lantalde batek sortu zuela, pertsona askok osatua, haren gidaritzapean.

23. KORRIKA, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu genuen: zehazki, baxoa eta brebeta probak euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak. Kolektiboa gazteek eratua da, guraso zein irakasleak bidelagun dituztelarik gatazkan. Aitortza hori haien egoera ezagutzera emateko bozgorailua izan zen: Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpo ere, mundu guztiak jakin zezan gazte horiek egun ezin dutela gure hizkuntzan bete ikasketen zati garrantzitsu hori.

Omenaldi-ekitaldia urtarrilaren 25ean izan zen, Hondarribiko Itsas Etxea Auditorioan. Bertan Oihaletxea dokumentala aurkeztu zen (Lander Garrok zuzendua), non jasota dauden Azterketak Euskaraz kolektiboa osatzen duten Seaskako ikasle, irakasle, guraso eta ikasle ohien testigantzak.

Edizio horretan, beste izen bat hamaika bider errepikatu zen: BADON! BADON* opera postdramatikoa izan zen 23. KORRIKAren ekitaldi kultural nagusia, KORRIKA-AEK I. Kultur Sorkuntzarako bekaren irabazlea. KORRIKAK ez du etenik, eta, edizioa amaitu bezain laster, BADONen ondorengoa ezagutu genuen. Entzun ongi: KAKA! Bai, KAKA izeneko proiektuak eskuratu zuen AEK-KORRIKA II. Kultur Sorkuntzarako Beka. Dena den, hau 23. KORRIKAren podcasta da, ez gaitezen etorkizunera mugitu.

Segituko dugu, beraz, 23. KORRIKA aletzen. Dena den, aurretik, galdera-parea: gose zarete? Egariak zaudete? Bai, jendeak, ura eta janaria behar dituen legez, KORRIKA ere behar du. Aizue, ez dugu guk asmatu, eta ez da lelo komunikatibo hutsa. Izan ere, edizioaren inguruan oihartzun handia izan zuen Jon Zabala Arando ikerlariaren azterlanak. Hark zientifikoki frogatu zuen KORRIKA parte hartzeak eragin psikologiko positiboak dituela gizarte-ongizatean eta ahalduntze kolektiboan. Tori!

Hori gutxi balitz bezala, 23. KORRIKA beste ikerketa bat egin zuten. Lander Crespo kliman adituak gidatuta, KORRIKAK lehendabiziko aldiz neurtu zuen nolako inpaktua sortzen duen ingurugiroan. Xede nagusia zen emisioak murrizteko moduak topatzea hurrengo edizioetarako. Hortaz, horri aurrerantzean helduko diogu, noski.

2800 lekuko-aldaketa, 4900 eramaile eta 11 egun zein 10 gau igaro ondoren, 23. KORRIKAK amaitu du ibilbidea, Irundik Baionarat. Honela zioten AEK-KORRIKako ordezkariak balorazioan: "Inoizko KORRIKArrik erraldoi eta anbiziotsuena lortu dugu, herria harro egoteko modukoa". Tafallako ahots batek amaiera bikaina eman zion 23. aldiari: Garazi Arrula Ruizen mezua, lekuko barruan ezkutuan ibili zena.

*"Korrika da herri bat gose,
iraun baino, haginka.
Herri anbiziotsu bat,
ez baita husten agiritan..."*